


***DEIALDIAREN
TXOSTENA
LEHEN AUKERA
2013/2014***



AURKIBIDE

- 1.-SARRERA
- 2.-PROGRAMAREN DEIALDIA ETA HEDAPENA
- 3.-LEHEN AUKERA PROGRAMAREN GESTIOA
 - 3.1 Ikasleen inskripzio fasea
 - 3.2 Enpresen inskripzio fasea
 - 3.3 Aukeratze-prozesua
 - 3.4 Hezkuntza Lankidetzarako Hitzarmenak
 - 3.5 Lehen Aukera langile espezifikoak
 - 3.6 Balorazioak
- 4.- GIZARTE SEGURANTZEAN ALTA PROZESUAREN
- 5.- CUM LAUDE SEGURUAN ALTA PROZESUAREN GESTIOA
- 6.- EGOKITZAPEN IKASTAROA
- 7.- TUTORITZA PROZESUAREN GESTIOA
 - 7.1 Unibertsitateko tutoreak
 - 7.2 Enpresetako instruktoreak
- 8.- PARTE-HARTZAILE ASEBETZEKO SEGIMENDUA
 - 8.1 Bekadunen balorazioa
 - 8.1.1 Azken memoria
 - 8.1.2 Txostena
 - 8.2 Lehen Aukeran parte hartu duten zentruak asebetze inkesta
- 9.-LEHEN AUKERA PROGRAMA EBALUAZIO ADIERAZLEAK
 - 9.1 Partaidetza datuak
 - 9.2 Kontratazio datuak

1.- SARRERA

Behin amaituta Ordena 2013ko azaroaren 28an Hizkuntza Politika eta Kultura sailburuak 2013ko abenduaren 10ean emandako aginduaren ondoren, Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizuna gauzatzeko epea, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateara emandako finanatziarioa 690.000 euroak gehitzen dira Kontratu-Programa dagokion 2013ko urteari, Azken Txosten honetan hausnarketa eta aurten egindako lanaren aurkezpena egiteko momenturik egokiena da.

eta Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) gestionatzen duena.

"Lehen Aukera" deialdia, 2014ko otsailaren 18ko EHAA-n argitaratuta, Eusko Jaurlaritzak eta Confebask/Euskal Enpresarien Konfederakuntzak bultzatutako esperientzia pilotua da, unibertsitateko titulu ofizialen bat (lizentziatura, diplomatura, gradua, ingeniari-tza, arkitektura eta masterra) daukaten pertsonen lanbidean gehiago trebatzeko fase bat egin dezaten enpresetan, enplegu kualifikatua aritzeko behar diren ezagutzak, gaitasun teknikoak eta trebetasunak areagotzeko. Kontutan hartuta Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatearen helburuetako bat dela ikasleen heziketa osoa bultzatzea, eta lanean hasteko beharrezkoa den prestakuntza ziurtatzea, gehienera 345 laguntzaren deialdia egin zen, esperientzia pilotu honen barruan lan harremanik gabeko praktiken araubidez.


Adierazitako guztiaz bat, 2013/2014 ikasturterako diru laguntzak emateko deialdi hau egin da, prestakuntza programa bat bultzatzeko xedez. Hiru hilabeteko iraupena edo baliokidea izango duen prestakuntza modulu bat egingo dute, honela osatua: ikasketa osagarrien ikastaro bat (teorikoa) eta hautatuen profil akademikoari lortutako prestakuntza jarduerak enpresetan, laneakoak ez diren praktiken araubideari jarraiki.

345 beken % 5 izan dira % 33ko ezintasun maila edo handiagoa duten tituludunentzat. Kupo horretako % 50 izango dira % 65ko ezintasun maila edo handiagoa duten tituludunentzat. Egoera horretan egongo diren pertsonen egiaztatu egin behar izan dute ezintasunen bat daukatela, eta unibertsitateak kasuan kasuko egiaztagiria eskatu ahal izango die. Bide honetatik aurkeztutako 11 pertsona horietatik, batek uko egin zion behin-behineko esleipena baino lehen eta beste hamarrak enpresetan lan egiten dute.

2.- PROGRAMAREN DEIALDIA ETA HEDAPENA


Lehen Aukera programak UPV/EHUri ekarri dion zailtasunik handienetako izan da, hain zuen ere, programaren beraren zabalkundea. Programaren zer nolakoak ikusita eta UPV/EHUK gestionatutako laguntza kopuru handia aintzat harturik, ezinbestekoa zen ahal zenik eta titulatu gehien-gehienengana iristea, laguntza hauen orokortze eta aukera berdintasuna bermatuko baziren. Hala ere, deialdiak 2012/2013 ikasturtean titulaturakoak helburu zituela kontutan hartuta, Lehen Aukera programaren jasotzaileak UPV/EHUK erabili ohi zituen informazio bideetatik at zegoen, jasotzaile gehienak ez baitziren harez gero unibertsitateko ikasle.

Horregatik, laguntzen deialdi ofiziala 2014ko otsailaren 18ko EHAAn argitaratzeaz gain, deialdiari buruzko informazio osoa UPV/EHUREN web gunearen bidez eskaini zen, bai Web gune nagusian nola ikasleen atalean:



UPV/EHUKo Lehen Aukera programari buruzko informazioa

Web gunean eskaintako informazioa UPV/EHUKo enplegu guneek gestionatu eta eguneratutakoa da, beren atari tematikotik aterata (www.ehu.es/enplegua).



Lehen Aukera programari eskaintako web gunea, enplegu guneen atari tematikoan kokatuta.

Web hau komunikaziorako baliabiderik nagusia izan da, bertan argitaratu baitira deialdiaren oinarriak, data eta epe inportanteenak, izena emateko prozedura, hautaketarako irizpideak eta programan onartutakoen zerrrenda (bai behin-behinekoek bai behin betikoak). Geroago, erreminta hau ikastaroak emateko tokiak eta hauen ordutegiak jakinarazteko ere erabili da.

Unibertsitateko ikastegi bakoitzak informatzeko mezuak igorri dizkie Lehen Aukera programaren berri emanez 2013. urtean titulaturako guztiei.

Teknologia berriak ere erabili dira berri ahalik eta hobeto irits zekien helburuko jasotzaileei:

- 1- Facebook ads CPC Euskal Autonomia Erkidegoari segmentatua (20 – 30 urte), irismen potentziala 175.000 pertsona, <http://www.ehu.es/eu/web/enplegua/lehen-aukera-bekak> bideratuta.
- 2- CM, 10 ordutakoa, Facebook, LinkedIn-eko taldeetako informazioari ikusgarritasuna emateko asmoz, bai eta UPV/EHUK Twitter-en dituen zenbait kontu sateliteri ere.

Erabili den beste hedabide bat ere irratia izan da, non 4 elkarrizketa burutu baitziren deialdiari buruzko informazioa emateko.

Programa UPV/EHUtik kanpoko eremuetara zabaltzeko helburuaz, fitxa bat diseinatu zen deialdiaren informazio esanguratsua bertan jasotzeko. Fitxa hau UPV/EHUKo ikastegi guztietara igorri zen. Enplegu guneen aurkezpenetan ere jarri da, otsail eta martxoan zehar burutu diren ekitaldi ezberdinetan proiektatu direlarik.

Zure etorkizun profesionala hemen hasten da
Tu futuro profesional empieza aquí

Zer da? ¿Qué es?
Lehen Aukera UPV/EHUn deialdi bat da, eta 345 beka eskaintzen dira lanbideratzea errazteko asmoarekin
Lehen Aukera es una convocatoria de la UPV/EHU de 345 becas para poder facilitar el acceso al empleo

Zein helburu ditu? ¿Qué objetivos tiene?
Enplegu kualifikatua aritzeko beharrezkoak diren gaitasun teknikoak eta trebetasunak garatzea
Desarrollar las habilidades técnicas y las destrezas necesarias para ejercer un trabajo cualificado

Zertan datza? ¿En qué consiste?
Ikastaro Osagarri batean (2,5 ECTS kreditukoa)
Hiru hilabete iraungo duten praktika ordainduak enpresatan
Curso de Estudios Complementarios (2,5 créditos ECTS).
Prácticas remuneradas de 3 meses en empresas

Norentzat zuzendua? ¿Para quién es?
UPV/EHUn 2012/2013 ikasturteko tituludunentzat (lizentziatura, diplomatura, gradua, ingeniari-tza, arkitektura edo masterra bukatu dutenentzat)
Para las personas que hayan conseguido un título universitario de la UPV/EHU (Licenciatura, Diplomatura, Grado, Ingeniería, Arquitectura o Master) en el curso académico 2012/2013

Informa zaituz/Infórmate
946017150
<http://gestion.ehu.es/gaur/lehenaukera@ehu.es>

Lehen Aukera programa sustatu eta zabaltzeko diseinatutako fitxa

Honez gain, etengabe eman zaie informazioa UPV/EHUko 4 enplegu guneetan bertara hurbildu diren pertsoneri. Enplegu guneak hiru unibertsitate campusetan daude kokatuta.

ARABAKo Enplegu Gunea

Elurreta Eraikina
Nieves Cano K 33
01006 VITORIA / GASTEIZ
Telefonoa: 945-014-436
Helbide elektronikoa: enpleguaraba@ehu.es



BIZKAIAko Enplegu Guneak

Basoko Etxea - Sarriko Parkea
Agirre Lehendakariaren hiribidea, 83
48015 BILBO
Telefonoa: 946-013-679 / 946-013-681
Helbide elektronikoa: enplegubizkaia@ehu.es



Via Apia. Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateko
beheko solairua.
Sarriena auzoa z/g
48940 - LEIOA
Telefonoa: 946-017-973
Helbide elektronikoa: enpleguleioa@ehu.es



GIPUZKOAko Enplegu Gunea

Ignacio M^a Barriola eraikina (ikasgelategia)
Elhuyar Plaza 1
20018 DONOSTIA - SAN SEBASTIAN
Telefonoa: 943-015-946 / 943-018-069
Helbide elektronikoa: enplegugipuzkoa@ehu.es



Azkenik, eskatu zitzaion zenbait elkargo eta elkarte profesionali programa zabal zezaten, izangairen batzueganaino iristeko, tituluak izanik, lehenago deskribaturiko hedabideak agian kontsultatu ez zituztelakoan.

Beraz, programa aipatutako hedabide hauen bidez zabaldu ondoren, 933 eskari izan dira programan, izena emateko epea amaitu denean. Proposatutako beka bakoitzeko 2,70 eskariren ratioa, hortaz.

3.- LEHEN AUKERA PROGRAMAREN GESTIOA

3.1 ikasleen inskripzio fasea

Lehen Aukera programa gestionatzeko, UPV/EHUK, IKTen gerenteordetzaren bidez, atari espezifikoa atondu zuen eskarian egin eta gestionatu ahal izateko. Era honetara, UPV/EHUn ziren bi plataforma konbinaturik erabiltzeko aukera planteatu zen. Titulatuen gestio akademikorako **GAUR** plataforma eta borondatezko praktikak gestionatzeko erabiltzen den **PRAKTIGES** erreminta. Era honetara, eskariak batez ere modu telematikoaz gestionatu dira, GAUR plataformaren bidez (<http://gestion.ehu.es/gaur>). Bertan bide eman zaie 2012/2013 ikasturtean titulatuei Lehen Aukera deialdia eskuratzen, horretarako botoia jarriz. GAUR plataforman jaso diren eskariak tramitatu dira izangaiaren puntuazio akademikoa bere espediente akademikotik zuzenean lortu delarik. Honela, egin beharreko tramite bakarra izan da hizkuntzari buruzko kalifikazioa gehitzea (akreditazioa aurkeztuz gero) eta deialdian eskaturiko dokumentuak egiaztatzea, hurrengoak izan dira_

- administrazio egoitzaren ziurtagiria edo erroldatze ziurtagiria.
- Lanbide/Euskal Enplegu Zerbitzuan enplegua eskatzeko interesatuak izena emanda duela egiaztatzen duen agiriaren kopia

Aukera ere eman da paperezko eskariak aurkez zitezen, UPV/EHUren erregistro orokorretan eta Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren arloko errektoreordetzan aurkeztuta. Eskari hauek Lehen Aukera beka programen arduradunengana bideratu ziren, hauek erkatu eta balioesteko.

3.2 Enpresen inskripzio fasea

Ikastegi bakoitzak publizitate espezifikoa igorri zien inoiz ikaslerik praktikan emaitza positiboekin izan duten enpresei.



UNIVERSIDAD DEL PAIS VASCO
Euskal Herriko Unibertsitatea

CAMPUS OF INTERNATIONAL EXCELLENCE

Lehen Aukera UPV/EHU

Talentua zure enpresan / El talento en tu empresa

Zer da?
Lehen Aukera UPV/EHUREN delaldi bat da, eta gure inguruko enpresetan artizoko 345 beka eskaintzen dira lanbideratzea errazteko asmoarekin



¿Qué es?
Lehen Aukera es una convocatoria de UPV/EHU de 345 becas en empresas de nuestro entorno, para poder facilitar el acceso al empleo

Norentzat zuzendua?
UPV/EHUa 2012/2013 ikasturteko tituludunentzat (lizentziatura, diplomatura, gradua, Ingeniaritza, arkitektura edo masterra bukatu dutonentzat)
Tituludun horiak zein gol-mailako prestakuntza duten tituludun motibatuak aukeratzeko interesa duten enpresentzat zuzendua

¿Para quién es?
Para las personas que hayan conseguido un título universitario de la UPV/EHU (Licenciatura, Diplomatura, Grado, Ingeniería, Arquitectura o Master) en el 2012/2013.
Para empresas interesadas en seleccionar recién titulados o tituladas motivados y con alta cualificación


Zertan datza?
3 hilabete iraungo duten praktika ordainduak enpresetan. Kostu osoa, Gizarte Segurantzaren alia barne, bekaren kargu dego.
Ikastaro Osagarri batean (2,5 ECTS kredituko).

¿En qué consiste?
Prácticas remuneradas de 3 meses en empresas. Coste total, incluido el alia en la Seguridad Social, a cargo de esta beca.
Curso de Estudios Complementarios (2,5 créditos ECTS)


Informa zaituz/Infórmate
946017150
<http://gestion.ehu.es/gaur>
lehenaukera@ehu.es

PRAKTIGES sistema erabili da Lehen Aukera programarekiko interesik zuten enpresak gehitzeko. Honela, bi baliabideok erabili dira praktikak esleitzeko azken prozesurako.



3.3 Aukeratze-prozesua

Eskariak aurkezteko epea amaituta, deialdian ezarritako onarpen irizpideak aplikatu dira eta, hartara, izangai onartuen behin-behineko zerrenda eta baztertutako izangaien behin-behineko zerrenda osatu ziren 2014-03-19an. Eskarietan atzemandako balizko akatsak zuzentzeko 10 egunen epea iraganik, zuzendu ezean kanpo geratuko ziratekeela ohartarazita, zerrenda horien behin betiko bilakatu ziren 2014-04-01ean.

Gero, balioztapen irizpideak aplikatu dira batez besteko kalifikazioaren eta hizkuntzakako puntuazioaren arabera eta, balioztapen bidean ari diren eskarien behin-behineko zerrenda sortu zen 2014-04-01ean, puntuazioaren arabera ordenaturik eta titulazioka banaturik (ikus I. eranskina). Zerrenda honi erreklamaziorik egin ahal izateko 3 egunen epea iragan ondoren, balioztapen tramitera onarturiko behin betiko zerrenda sortu zen 2014-04-05ean (ikus II. eranskina).

Programan parte hartzeko interesa agertutako enpresak aintzat hartuta, esleitu ditu praktikak ikastegi bakoitzak, deialdiaren irizpideekin bat etorrira eta izangaien prestakuntza parte hartzen zuten enpresekiko egokitasuna aintzat hartuz. Bekak esleitzeko behin-behineko zerrenda (ikus III. eranskina) 2014-04-12an eman zen argitara eta bekak esleitzeko behin betiko zerrenda (ikus IV. eranskina) 2014-04-25ean.

3.4 Hezkuntzako lankidetzaren hitzarmenak

Praktikak egiteko, Unibertsitateak entitate koraboratzaileekin Hizkuntzako lankidetzaren hitzarmena sinatuko du *EBAZPENA, 2012ko urriaren 16koa, Euskal Herriko Unibertsitateko Akademia Antolakuntzako errektoreordearena, honako hau argitaratzekoa: Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoen Araudia, 2012ko irailaren 27ko Gobernu Kontseiluan onartuaren arabera.*

III. ERANSKINA

HEZKUNTZA LANKIDETZARAKO PROGRAMA BAT GARATZEKO HITZARMENA UPV/EHUko

IKASTEGIAREN ETA ERAKUNDEAREN ARTEAN

..... jn./and. (Zuzendaritza/Dekano-taldeko kidea) Eta

..... jn./and., (erakundea)-ko (kargua) Hezkuntza Lankidetzarako

Hitzarmen hau izenpetu dute, unibertsitateko ikasleen kanpoko praktika akademikoak arautzen dituen azaroaren 18ko 1707/2011 Errege Dekretuak eta Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoak arautzen dituen UPV/EHUren Araudiak ezarritakoaren arabera.

1.- Programan parte hartzen duen ikaslea:

2.- Erakunde laguntzaileko instruktorea:

3.- Ikastegiko tutorea:

4.- Praktiken programaren arduraduna:

5.- Prestakuntza-proiektua:

a) **Hezkuntza-helburuak:**

b)

IKASLEAK ESKURATU BEHARREKO OINARRIZKO GAITASUNAK:

1.-

2.- (...)

IKASLEAK ESKURATU BEHARREKO GAITASUN GENERIKOAK:

1.-

2.- (...)

IKASLEAK ESKURATU BEHARREKO GAITASUN ESPEZIFIKOAK:

1.-

2.- (...)

b) Garatu beharreko jarduerak edo zereginak: **Garatu beharreko jarduera edo zereginen azalpena**

1.-

2.- (...)

6.- Non egingo den jarduera:

7.- Programaren iraupena eta ordu-kopurua:
2012/4968 (45/27)

8.- Bertan behera utzi ahal izango da praktika, baldin azaroaren 18ko 1707/2011 Errege Dekretuaren 9. artikulua ikasleei ezartzen dizkien betebeharrak betetzen ez badira. Hori horrela, horren berri emango dio UPV/EHUK edo enpresak hitzarmen honen bidez sortutako Jarraipen Batzordeari, eta batzorde horrek 10 eguneko epea izango du praktika alde aurretik bertan behera uzteko egokitasunari buruz erabakitzeko.

9.- Ikasleak huts egin ahal izango du praktika azterketarik egin behar izanez gero, eta hiru egun lehenago emango dio horren berri instruktoreari. Arrazoi akademikoek edo beste era batekoek eragindako hutsegiteak lehenbailehen jakinarazi beharko zaizkio instruktoreari edo tutoreari, eta tutorearen baimena beharko dute, hala behar izanez gero.

10.- Ikaslearentzako Laguntza Poltsaren zenbateko osoa eurokoa da hileko (1). Kopuru horri dagokion PFEZ atxikipena aplikatuko dio enpresak, baita legez ezarritako beste atxikipenak ere, indarrean dagoen legediaren arabera.

11.- Erakundearen ekarpena kudeaketa-gastu gisa UPV/EHUri: euro (1).

12.- Praktikak enpresetan egiten dituzten ikasleen datuak Hitzarmen honetan ezarritako helburuetarako erabiliko dira soil-soilik. Ikasleak baimena emango die Unibertsitateari eta erakunde laguntzaileari bere datuak aurreko paragrafoan zehaztutako moduan erabiltzeko.

13.- Edonola ere, aldean eskubide eta betebeharrak dagokienez, kontuan izango da Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoak arautzen dituen UPV/EHUri Araudiak ezarritakoa.

14.- Jarraipen Batzorde bat eratuko da, Ikastegiko edo tituluaren ardura duten Berezko Ikasketen bi ordezkari eta erakunde laguntzailearen beste bi kidek osatuta. Horren egitekoa izango da praktikak egitean edo hitzarmena betetzean sor daitezken gorabeherari buruzko erabakiak hartzea. Batzorde hori eratzean, sinatzaileak batzordeburu izango dira txandaka, eta UPV/EHUri egokituko zaio hasierako txanda.

15.- Hezkuntza Lankidetzarako Hitzarmenaren indarraldiak bat egingo du praktikaldiarekin, eta, edonola ere, Ikasleen kanpoko Praktika Akademikoak Arautzeko UPV/EHUri Arautegiaren 5.3 artikulua ezarritako gutxienezko baldintzak bete beharko ditu.

IKASTEGIAREN IZENEAN

ERAKUNDEAREN IZENEAN

IKASLEA

Sinadura

Sinadura

Sinadura

(1) Erakunde laguntzaileak ez badu inolako kopururik jartzen poltsa edo kudeaketa-gastu gisa, "Hutsik" utziko da 10. edo 11. puntua.

Orokorrean praktikak 2014-5-5 hasiko dira eta 12 aste geroago 2014-7-27 amaituko dira.

3.5 Lehen Aukerarako langile espezifikoak

Deialdi honen egikaritzeak, programaren tamainaren aintzat hartuz, berariazko langileen beharra sortu du. Hori dela eta, Gestio Teknikaria perfilduna, eta Auxiliari Laguntzailea kontratatzea beharrezkoa izan da programa amaitu arte, Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erantzukizunaren Arloko Errektoreordetzaren menpe, Lehen Aukera deialdiaren gestioaren arduraduna da eta.


Kudeaketa errazteko eta edozein zalantza argitzeko asmoz prozesuaren edozein fasetan, hasieratik telefono bat, 94.601.71.50, eta korreo helbide bat, lehenaukera@ehu.es eskeini ziren eta argitaratu ziren prozesuarekin erlazionatutako persona guztiekin.

Beka honen berritasunagatik eta arlo askotako sortutako zalantzen galderen zenbakia egundokoa izan da, batez ere EHAA 2014-2-18tik empresa bakoitzean argitaratutako esleipena arte, 2014-4-25ean **6.971 deiak jaso dira**, behin bekadunak hasi lan egiten 2014-5-5, poliki-poliki jaitsi da. Halaber, lehenaukera@ehu.es jasotako korreoak 2014-4-25 arte 1.540 korreoak. Nola edo hala, kontaktu asko deia horiei erantzun dieten bi pertsonetarako.

3.6 Balorazioak

Izangaia enpresa zehatz bati esleitu ondoren, PRAKTIGES sistemak euskarri eskaintze du praktikaren osotasuna gestionatzeko, praktika bera egiteko hitzarmena egitetik, enpresak nola hautatutako izangaiak egin beharreko praktikaren azken balioespena egiteraino.

Oro har eta geroko deialdietan gehitu beharreko zenbait hobekuntza antzeman direlarik, erabilitako prozedura eraginkor agertu da, UPV/EHUn jada ezarrita eta ezagun diren bi erreminta baliatu baititu, izangaiaren espediente akademikoko datuak eta enpresen datuak, hitzarmenak, balioztapena eta bestelakorik erraz gestionatzeko gai izanik.



4. GIZARTE SEGURANTZEAN ALTA PROZESUAREN GESTIOA

Lehen Aukera Programaren beka bat jaso zutenei Gizarte Segurantzean Erregimen Orokorrean Alta eman genien bekadun moduan.

Alta mota honetan Gizarte Segurantzean ordainketa hila osorakoa da, nahiz eta egun guztiak ez egon. Inolako kasuan Gizarte Segurantzetik itzuliko da dirua.

5. CUM LAUDE SEGURUAN ALTA PROZESUAREN GESTIOA

Cum Laude aseguru AON GIL Y CARVAJAL. S.A. aseguru-etxeak eskeinitako aseguru osagarria da, eta Unibertsitateak aseguru primak ordaindu ditu ikasleen partez.

Aseguruak munduko edozein tokitan, egun osoan zehar ikasleei gertatutako istripuak bere gain hartzen ditu.

2014ko maiatzaren 5etik, praktikak hasi zituztetenean, bekadun guztiei alta eman genien aseguru honetan praktiken amaiera arte estaldura izateko.

Behin aseguru ordainduta, bekadunek Lehen Aukera programari uko egin arren ez da dirua itzultzen.

6. EGOKITZAPEN IKASTAROA

Hurrengo oinarrian aipatzen den diru laguntza jasotzeko hautatuak izan direnek prestakuntza ikastaro osagarri teorikoaren matrikula egin behar izan dute, eta ebaluazio positiboa eskuratu enpresetan praktikak egin ahal izateko egin behar den atal teorikoan.

Honetarako, UPV/EHUK unibertsitateko ikasketa osagarrien ikastaroa garatu du, ENPLEGU BILAKETARAKO GAITASUN AURRERATUEI BURUZKO IKASTAROA izenekoa. UPV/EHUK berak aintzatetsia.

Ikastaro osagarri honen barruan modulu ezberdinak daude, guztira, 2,5 ECTS kreditu osatuz eta amaieran, ikastaroaren azken txostena egin behar delarik. Ikastaro honetako gaitasunak dira honako hauek:

OINARRIZKO GAITASUNAK:

- Autodiagnosirako eta autoezagutzarako gaitasuna
- Lidergo trebetasunak eta taldean lan egiteko trebetasuna
- Gaitasun kritikoa eta bizitza osoko prestakuntza jardueretan parte hartzeko konpromisoa

GAITASUN ESPEZIFIKOAK:

- Lana modu aktiboan bilatzeko gaitasuna
- Langileak aukeratzeko prozesuei aurre egiteko trebetasuna
- Enpresak sortzeko eta autoenplegurako gaitasuna eta trebetasuna
- Izpiritu kooperatibista sustatzea
- Negoziaziorako eta jendaurrean ahozko aurkezpenak egiteko trebetasuna

Ikastaroko moduluen banaketa honako hau da, aipatu gaitasunak eskura zitezten:

- I. modulu: Enplegurako balibideak eta enplegua errazteko gaitasunak.
- II. modulu: Ekintzailtza
- III. modulu: Lankidetzan aritzeko jarrera
- IV. modulu: Enpresek eskaturiko ekintzaile profila
- V. modulu: Komunikazio gaitasunak

Ikastaroa hautatutako guztien eskura eta erraz jartzeko helburuaz, hiru campusetan irakatsi da, bai euskaraz bai gaztelaniaz. Guztira, 6 ikastaro eman zein honako era honetara:

Enplegu bilaketarako gaitasun aurreratuei buruzko ikastaroa, campuska

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Euskara	0	1	1
Gaztelania	1	2	1

7. TUTORITZA PROZESUAREN GESTIOA

Tutorea da erakunde laguntzaile batean kanpoko praktika akademikoak egiten ari den ikaslearen jarraipenaz eta laguntzaz arduratuko den irakaslea eta ikertzailea, eta UPV/EHUko kidea. Ikasle bakoitzari egokituko zaio bere tutorea.

Era berean, honako betebeharrak izango ditu:

a) Prestakuntza Proiektua gorabeherarik gabe gauza dadin zaintzea, eta praktiketako ordutegia eta ikaslearen betebeharrak akademikoak, prestakuntza-lana eta ordezkartzeko nahiz partaidetzeko betebeharrak bateragarriak izan daitezzen bermatzea.

b) Praktiken jarraipen eraginkorra bideratzea. Horretarako, erakunde laguntzailearen instruktorearekin koordinatuko da, eta aztertu egingo ditu, hala behar bada, jarraipen-txostenak.

c) Prestakuntza Proiektuan bidera litezkeen aldaketak baimentzea.

d) Tutoretzapeko ikaslearen praktiken ebaluazio-prozesua gauzatzea

e) Tutore-lanaren bidez lorturiko edo ezaguturiko zeinahi informazio isilpean gordetzea.

f) Unibertsitateko PPArri sor litekeen zeinahi gorabeherari buruzko informazioa ematea.

g) Ikasle ezinduek praktikak aukera-berdintasunean, bereizkeriarik jasan gabe eta irisgarritasun unibertsala xedatzen duen printzipioaren arabera egiteko, laguntzarako behar dituzten baliabideak egoki bideratu direla begiratzea eta, hala behar bada, hala egin dadila bermatzea.

Tutoreak idazten duen txostena bekaduna baloratzeko praktikaren garapenean

VI. ERANSKINA

IKASLEAREN TUTOREAREN AMAIERAKO BALORAZIO TXOSTENA ETA ZIURTAGIRI EGIAZTATZAILEA

I.- DATU OROKORRAK

Praktikaren izena

Tutorearen izen-deiturak

Erakunde laguntzailea

Instruktorearen izen-deiturak

II.- IKASLEAREN DATUAK

Ikaslearen izen-deiturak

Ikaslea matrikulatuta dagoen titulua

Ikasturte akademikoa

III.- PRAKTIKEN PROGRAMAREN DESKRIKAPENA

Praktika egin den Erakundearen saila

Praktika-aldiaren datak

Ordu-kopurua

IV.- EGINDAKO JARDUERA EDO EGITEKOEN ZERRENDA

Egindako jarduera edo lanen azalpena

Eskuratutako gaitasunak eta ezagutzak

1.-

2.- (...)

Ikasleen Kanpoko Praktika Akademikoak Arautzeko UPV/EHUren Arautegiaren 16. artikulua aplikatuta eta instruktoreak eta ikasleak igorritako txostenak ikusita, (**positiboki/negatiboki**) ebaluatzen dut haren parte-hartzea praktiken programan, eta ziurtagiri hau igortzen du, horien egiaztagiri gisa.

(Data eta tutorearen sinadura)

Unibertsitateko tutoreak

7.1 Enpresetako instruktoreak

Instruktorea da kanpoko praktika akademikoak bururatuko diren erakunde laguntzaileko kidea, formaziorako jarduerak Unibertsitatearekin bat eginik antolatzeko ardura duena.

Era berean, honako betebeharrak izango ditu:

a) Ikasleari harrera egin eta garatu beharreko jarduera Prestakuntza Proiektuan zehaztutakoaren arabera antolatzea.

b) Ikaslearen jarduerak gainbegiratzea, praktikaren garapena orientatzea eta kontrolatzea, elkarrekiko errespetuan eta ikaskuntzarekiko konpromisoan oinarrituriko harremanean.

c) Ikasleari erakundearen antolakuntzaren eta funtzionamenduaren berri ematea eta intereseko araudia ezagutaraztea, segurtasun eta lan-arriskuen arlokoa batez ere.

d) Hezkuntza-lankidetzarako hitzarmenean zehazturiko jardueren garapena Unibertsitateko tutorearekin koordinatzea, aintzat harturik aldi berean praktikaren garapen egokiari begira prestakuntza-proiektuan beharrezkotzat jo litezkeen aldaketak, eta bitarte horretan gerta litezkeen gorabeherak jakinaraztea eta soluziobidean jartzea. Haren ardurapeko egitekoa izango da, halaber, azterketak egiteko baimenen kontrola.

e) Tarteko eta amaierako txostena.

f) Ikasleei praktikak egin ahal izateko behar duten prestakuntza osagarria ematea.

g) Ikasleei praktikak egin ahal izateko behar dituzten bitarteko materialak ematea.

h) Ikasleei erraztasunak eta bultzada ematea, berritzaileak eta ekintzaileak izan daitezen eta hobetzeko proposamenak egin ditzaten.

i) Unibertsitateko tutoreari erakunderako sarrera zabaltzea, bere eginkizunaren arabera helburuak bete ahal izan ditzan.

j) Instrukture lanaren bidez ikasleari buruzko informazioa eskuratzen badu, informazio hori isilpean gordetzea.

k) Erakundearen ari den bitartean, ikasleari beharreko laguntza ematea, eginkizun dituen jardueretan suerta litezkeen lan izaerako arazoaren konponbideari begira.

l) Guztiz bermatuko du bere instalazio eta baliabideen erabilera, praktiken garapenari begira, eta berak zehaztuko du, halaber, hartu ahal izango dituen ikasleen kopurua, bere eskura dauden

INSTRUKTOREAREN AMAIERAKO TXOSTENA

I.- DATU OROKORRAK

Praktikaren izena

Instruktoarearen
izen-deiturak

Erakunde laguntzailea Ikaslearen izen-deiturak Ikaslea matrikulatuta dagoen titulua
Tutorearen izen-deiturak

II.- GARATUTAKO JARDUERAREN DESKRIBAPENA

Jarduera egin den
Erakundearen saila
Praktika-aldiaren datak
Ordu-kopurua Jardueraren deskribapen laburra

III.- GARATUTAKO JARDUERAK

Garatutako jardueren deskribapena

- 1.-
- 2.- (...)

IV.- INSTRUKTOREAREN BALORAZIOA BALORATU BEHARREKO PARAMETROAK (1etik 5era bitarteko balorazioa, non 5 bikain den eta 1 eskas)

- 1
- 2
- 3
- 4
- 5

Gaitasun teknikoa Ikasteko gaitasuna

Lanak administratzea

Ahoz eta idatziz komunikatzeko trebetasuna.

Ezintasun bategatik hitz egiteko zailtasunak dituzten ikasleen kasuan, trebetasun honetarako autonomia maila adierazi beharko da, baita baliabide tekniko eta/edo giza baliabideren bat behar duten ere.

Erantzukizun-zentzua

Egokitzeko erraztasuna

Sormena eta ekimena

Inplikazio pertsonala

8. PARTE-HARTZAILE ASEBETZEKO SEGIMENDUA

8.1 Bekadunen balorazioa

8.1.1 Azken memoria

Praktika amaitzean bekadunak memoria azken hau bete beharko du GAURren bidez.

IKASLEAREN AMAIERAKO TXOSTENA

I.- DATU OROKORRAK

Praktikaren izena

Erakunde laguntzailea

Praktika egin den

Erakundearen saila

Praktiken Programaren Arduradunaren (PPA) izen-deiturak Instruktoarearen izen-deiturak

Tutorearen izen-deiturak

II.- IKASLEAREN DATUAK

Ikaslearen izen-deiturak

Ikaslea matrikulatuta dagoen titulua Ikasturte akademikoa

III.- AMAIERAKO TXOSTENA JARDUEREN DESKTRIBAPEN XEHEA ETA HAIEN BALORAZIOA *(Balorazioa egitean, kontuan hartuko dira unibertsitate-ikasketei dagokienez eskuratutako ezagutzak eta gaitasunak)*

Zereginen zerrenda:

Oso ona Ona Eskasa Txarra

1.-

2.- (...)

Hala dagokionean, praktiketan sortutako arazoen azalpen xehea

Arazoa nola konpondu den *(Arazoen zerrenda)*

Praktikaren ekarpena ikaskuntzari dagokionez Hobetzeko iradokizunak Bai Ez

Amaitzean, praktikak zuzen edo zeharka eragin dezake lan-kontratu bat egitea enpresa horretan edo horri lotutako beste batean? Oso ona Ona Eskasa Txarra

PRAKTIKAREN EBALUAZIO GLOBALA

Beka honen onuradun guztiek programa honen bidez eskainitako aukera hau eskertu dute, Unibertsitatean landutako lanbide profesionala hasi ahal izan dute eta.

Gehienetan bekari buruzko oso iritsi ona daukate bere etorkizunean eta kasu batzuetan enpresa geratzeko aukera. Lanpostu bat lortu ez dutenek ere eskertzen digute, eskarmentu handia hartu dutelako.

Kasu zehaztu batzuetan kexatzen dira hiru hilabeteak baino ez direla eta epe gehiago nahiko lukete enpresan bere formaketa jarraitzeko.

Askotan zoriontzen gaituzte serbitzu honetako lankideak eskainitako laguntzagatik. Lehen urtea denez, zalantza eta ziurtazunik eza pilo bat sortu ziren baina erantzun egin genien eta euskarria eman genien.

Enpreseei dagokienez, programa hau izugarri gustatu zaie, zeren eta tituludun berri kontaktuan jartzeko aukera ona baita, lan egiteko gogoia eta ilusioa baitaukate, baina

krisialdian gaudenez ez diete kontratatu bere eskarmentu ezagatik. Bekadunek bere gogo handiz eta ekimentasunaz konpentsatzen dute haien eskarmentu eza.

Enpresa batzuek zoriondu egin gaituzte, Lehen Aukera Programari esker printzipioz ez lioketen kontratatuko tituludunak ezagutu dute baina bere balio erantsiagatik lanpostu finkoa izatea pentsatu dute.

8.1.2 Txostena

Kurtsoa baloratzeko eta bekadunek luze eta zabal azaltzeko orokorrean Lehen Aukera Programari buruz, teorika eta praktika atalean, formulario bat bidali diegu betetzeko eta bidaltzeko guri korreo elektronikoaren bidez.

LEHEN AUKERA PROGRAMAREN AMAIERAKO TXOSTENA



Deiturak eta izena:

NANa:



I. ATALA:

ENPLEGU BILAKETARAKO GAITASUN AURRERATUEI BURUZKO IKASTAROAREN INGURUKO TXOSTENA

SARRERA

Honako txantilo horien bidez, enplegurako ikasketa osagarrien eta enplegua errazteko gaitasunei buruzko amaierako txostena egin ahal izateko gida eskaini nahi da.

Lanak, amaierako txostena izanik, ikastaroaren eduki nabariak behar ditu jaso, bai eta ikastaroak praktikan egon bitartean izan duen aplikagarritasunari buruzko balioespena ere.

Sarreraren gehieneko luzapena: orrialde bat.



I. MODULUA: ENPLEGURAKO BALIABIDEAK ETA ENPLEGUA ERRAZTEKO GAITASUNAK

Modulu honen alderdirik garrantzitsuenak deskribatu, ikaslearen iritziaz.

Modulu honen gehieneko luzapena: orrialde bat.



II. MODULUA: EKINTZAILETZA

Modulu honen alderdirik garrantzitsuenak deskribatu, ikaslearen iritziaz.

Modulu honen gehieneko luzapena: orrialde bat.



III. MODULUA: LANKIDETZAN ARITZEKO JARRERA

Modulu honen alderdirik garrantzitsuenak deskribatu, ikaslearen iritziaz.

Modulu honen gehieneko luzapena: orrialde bat.



IV. MODULUA: ENPRESEK ESKATURIKO EKINTZAILE PROFILA

Modulu honen alderdirik garrantzitsuenak deskribatu, ikaslearen iritziaz.

Modulu honen gehieneko luzapena: orrialde bat.



V. MODULUA: KOMUNIKAZIO GAITASUNAK

Modulu honen alderdirik garrantzitsuenak deskribatu, ikaslearen iritziaz.

Modulu honen gehieneko luzapena: orrialde bat.



ONDORIOAK

Laburbildu ondorio modura ikastaroaren edukiak eta eman balioespen pertsonal bat jasotako ikastaroaren inguruan eta bere erabilgarritasunaren inguruan.

Modulu honen gehieneko luzapena: 2 orrialde.

Bekadunen erantzunak kontuan hartuz, ikastaroaren ondorengo balorazioa egin dezakegu. Gehiago zehazteko, ikastaroan bertan erabilitako moduluen araberrako banaketari jarraituko diogu:

I. modulua - Enplegurako baliabideak eta enplegua errazteko gaitasunak

Edukiak, oro har, oso erabilgarritzat jo dituzte beren etorkizunean enplegua bilatzeko, honako gai hauek landu baitituzte:

- **gaitasunak eta gaitasun motak, eta norberaren ahalmenak.**
- **nork bere burua ezagutzea; zenbat eta gehiago ezagutu, orduan eta errazago nabarmenduko ditugu gure bertuteak laneko elkarrizketetan.**
- **asertibitatea, erronkei aurre egiteko jarrera.**
- **lehentasunak finkatzen eta denbora kudeatzen jakitea, eraginkortasun handiagoa lortzeko.**

Balio horiek guztiak erabilgarriak dira bizitza profesional nahiz pertsonalerako, eta beharrezkoak dira gure bizitza ahalik eta gehien aprobetxatzeko, une bakoitzaz gozatuz.

II. modulua - Ekintzailtza

Atal honetan, ekintzailtzaren inguruko arloak eta enpresa ekimen bat martxan jartzeko erronkak, ahalmenak eta gaitasunak aztertu dituzte.

Iritziak asko aldatzen dira ikastaroa eman duen pertsonaren eta bekadunaren titulazioaren arabera; izan ere, sektore batzuek ez dute ekintzailtza gertuko elementu gisa ikusten. Dena den, oro har, ekintzaileekin harremanetan jartzeko eta beren burua horiekin identifikatzeko aukera baloratzen dute, baita Unibertsitateko Campus bakoitzean bide horri ekiten lagun diezaiekeen zerbitzu bat dagoela jakitea ere.

III. modulua - Lankidetzan aritzeko jarrera

Ikasle ohi hauek kooperatibismoaren mundura gerturatzen saiatu gara, beren lan etorkizunerako negozio aukera posible gisa kontuan har dezaten.



Modulu honen inguruko askotariko iritziak jaso ditugu, hitzaldia eman duen pertsonaren arabera; izan ere, edukiak lantzeko moduaren arabera, gaia oso interesgarria izan daiteke, nahiz eta etorkizun hurbilean bide horri ekiteko asmorik ez izan.

IV. modulua - Enpresek eskatzen duten ekintzaile profila

I. moduluaren ildoari jarraitzen dio eta lanpostu baterako hautagaiengan nabarmendu behar duten alderdiak zehatzago lantzen ditu:

- jarrera positiboa
- erronka berrien onarpena
- proaktibitatea eta ekiteko gaitasuna
- gogoia...

Bekadun gehien iritzia positiboa da; edukiak asko landu dira eta mota guztietako tekniken bidez azaldu dira, barnera ditzaten eta dagokion unean balio horiek azalera ditzaten.

V. modulua - Komunikaziorako trebetasunak

Modulu honen helburu nagusia edozein esparrutarako, baina, bereziki, lan esparrurako (elkarrizketetarako edo jendaurrean hitz egiteko) lagungarria izan daitekeen metodologia bat proposatzea da. Hitzik gabeko komunikazioaren garrantzia azaltzen du; nola jokatu eta zeregin bat konfiantzaz eta jarrera egokiarekin gauzatzeko zer teknika erabili.

Bekadun guztiek azken modulu hau goretsi dute, bizitzako edozein egoeratan eta beren bititza osoan praktikoa izan daitekeela uste baitute. Bereziki nabarmendu dute prestatzaileen lana; beren arloa ondo ezagutzen dutela eta beren ezagutzak transmititzen espezializatuta daudela adierazi dute.

Ikastaroaren izenburuak adierazten duen moduan, bertan parte hartu duten pertsonen enplegua bilatzeko gaitasun aurreratuak ematea izan du helburu; alegia, moduluak egin dituzten ikasleei orientazio gida bat ematea, alderdi hauek barne hartuko dituen: lan merkatuaren egungo egoera, aurrean dituzten aukerak eta sortzen zaien edozein erronkari arrakastaz aurre egin ahal izateko beharrezko tresnak.

Lan esparruaren baitan eskainitako prestakuntzen aniztasunari esker, ikasleek enpresetako antolamendu ereduaren ikuspegi zabala eskuratu ahal izan dute, baita Unibertsitateak eskaintzen dituen eta orain nahiz etorkizunean erabili ahal izango dituzten laguntzen ere.

Era berean, Unibertsitatean jaso duten prestakuntzan, irakasleen irakaskuntzak eta esperientzia pertsonalak (bai arrakastak bai porrotak) baliagarriak izan zaizkie eredu gisa eta



beren buruengan segurtasuna izateko motibazio gisa, langile gaituak izan daitezkeela sentitzeko.

Ikasle gehienek ikastaroaren balorazio oso positiboa egin dute. Ikastaroak beste ikuspegi bat eman die, orain arte Unibertsitatean eskuratutako gaitasunekiko desberdina, eta lan munduan sartzeko bide berri bati ekiteko balio izango die.



II. ATALA:

LEHEN AUKERA BEKAKO PRAKTIKEI

DAGOKIENEZ

Zehaztu Lehen Aukera beka hobetzeko iradokizunak.

Modulu honen gehieneko luzapena: orrialde bat.

8.2 Lehen Aukeran parte hartu duten zentruak asebetze inkesta

Programaren lortze onenarako Unibertsitateko zentru guztietako kolaborazioa ezinbestekoa izan da. Beraz, proiektu honen garrantzia hartuz bere eskarmentua baloratzea eta iradokizunak eskatzea beharrezkoa zen, programa honen etorkizuneko deialdietan hobetu beharreko alderdiak bilatzeko, aurtengo akatzak ekiditzeko.

Horregatik bere laguntza eskatu genien inkesta azkar hau egiteko (3-5 minututan erantzun daiteke), edozein iradokizun idazteko.

LEHEN AUKERA PROGRAMA BALIOESTEKO TXOSTENA

Balioespenak:

1. Deialdiari buruzko alde aurretiko informazioa, epeak, egindako kontsulten erantzunak, ...

Balioespena: (Okerrena: 0 / Onena: 5)

Iruzkina:

2. Eskatzeko metodoa, aplikazio informatikoa, eskariak eta aplikazioen bidez jasotako informazioa:

Balioespena: (Okerrena: 0 / Onena: 5)

Iruzkina:

3. Enpresa hautatzeko metodoa, aplikaturiko irizpideak, izangaiak eta enpresak hautatzeko erraztasuna:

Balioespena: (Okerrena: 0 / Onena: 5)



Iruzkinak:

4. Programaren balorazio orokorra. Hurrengo deialdietan hobetu beharreko alderdiak.

Balioespena: (Okerrena: 0 / Onena: 5)

Iruzkinak:

Bestelako iruzkinak, galderetan jaso gabeak:


Mesedez, igorri inkesta lehenaukera@ehu.es helbidera. ESKERRIK ASKO!

Orokorrean eskaera metodoari buruzko oso iritzi ona izatea adostu dute, parte hartzaile guztiei ezaguna izateagatik. Hala ere, sistemak beste informazioaren bat ematea nahiko lukete (adibidez: Curriculum Vitae) ikasleen lotura enprekin errazteko.

Hautaketaren metodoa, Unibertsitateko zentru edo fakultate bakoitzaren kasuistikaren ondorioz (beka eskatzen duten lagun kopuru nahikoa, titulazioa eskaintzen duten empresa nahikoa, Arlo Publikoarekin ohiko lana,...) praktika hauek lortzeko momentuan zailtasunen arabera balorazio erabat ezberdina eragin du.

Zentru edo fakultateko arduradunek bekadunentzat praktikak enpreetan lortzeko, ahalegin handia egin behar izan dute, enpresen esleipenaren epeak betetzeko.

Aipagarria da Lehen Aukerako arduradunentzeko zorionak frogatutako eraginkortasunagatik galderak erantzuteko, Unibertsitateko Praktiken arduradunak laguntzeko asmoz. Adeitasun handia bai telefonoz, bai poztan elektronikoz aintzat hartu dute, nahiz eta serbitzuaren asebetetzea gorabehera.





9. LEHEN AUKERA PROGRAMA EBALUAZIO ADIERAZLEAK

9.1 Partaidetza datuak

Lehen Aukerako deialdiaren datu orokorrak.

	Jasotako eskariak	Onartutako izangaien kopurua	Hasitako praktikak	201-/05/16 arte jazotako ukoak
Araba	123	111	53	0
Bizkaia	532	490	173	3
Gipuzkoa	278	250	113	3
GUZTIRA	933	851	339	6

Emaitzak ikusita, esan daiteke eskaintzan ziren laguntza ia guztiak bete egin direla, campus mailan banaketa logikoa agertuta. Ondorioz, esan daiteke programa jarrera ona izan duela UPV/EHUko titulatuena aldetik eta, deialdi bat ikasle jada titulatuena artean zabaltzeko zailtasunak zailtasun, lortu egin dela programa behar besteko eraginkortasunez sustatu eta hedatzea.

Enpresetan egonaldiak portzentajea bideratutako eskaeretan 36,30% da.

ARABA

<u>IKASTEGIA</u>	<u>BEKADUNAK</u>	<u>HASIERAN ONARTUAK</u>
125 Farmazia F.	14	22
130 Letren F	23	40
135 Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren F.	8	15
121- 151 Gasteizko Enpresa Ikasketen U.E.	12	17
154 Gasteizko Irakasleen U.E.	0	4
160 Gasteizko Gizarte Langintzako U.E.	1	1
163 Gasteizko Ingeniaritzako U.E.	11	24
GIPUZKOA		
215 Kimika F.	3	9
224-324 Zuzenbide F.	11	41



226 Informatika F.	6	6
230 Filosofia eta Hezkuntzen Zientzien F.	14	16
231 Psikologia F.	19	30
240 Arkitekturako G.E.T.	12	28
221- 251 Donostiako Enpresa Ikasketen U.E.	12	40
252 Donostiako Erizaintzako U.E.	4	7
254 Donostiako Irakasleen U.E.	1	1
263 Donostiako Unibertsitate Eskola Politeknikoa	22	62
264 Eibarko Industria Ingeniaritza Teknikoko U.E.	1	2
BIZKAIA		
310 Zientzia eta Teknologia F.	17	52
320 Arte Ederretako F.	21	41
321 Ekonomia eta Enpresa Zientzien F.	<u>12</u>	76
323 Gizarte eta Komunikazio Zientzien F.	21	50
327 Medikuntza eta Odontologia F.	0	3
345 Bilboko Ingeniaritza G.E.T.	9	42
351 Bilboko Enpresa ikasketen U.E.	17	30
352 Leioako Erizaintzako U.E.	4	4
354 Bilboko irakasleen U.E.	11	20
356 Lan Harremanen U.E.	4	5
363 Bilboko Industri Ingeniaritza Teknikoko U.E.	17	53
364 Meatzeen eta Herri Lanen Ingeniaritza Teknikoko U.E.	4	29
908 Masterrak eta doktoregoa	28	119
GUZTIRA	339	886



9.2 Kontratazio datuak

- Programaren bidez intserzio kopurua: praktikak egin ondoren egindako kontratuak kopurua.

Bekedunek jasotako 213 txostenen arabera, **69 kontratuak** egin dira, hau da, **343 esleitutako beketik** egindako kontratuak % **20,11**.

